



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GIZARTE
ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIAS SOCIALES
Y DE LA COMUNICACIÓN



Irakaskuntza gida

SOZIOLOGIAKO GRADUA

www.ehu.eus/gkz-csc

Basque
Country

Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco



Nola funtzionatzen du gizarteak? Boto asmoa iragartzerik ba al dago? Zer nolako eragina daukate sare sozialek eta internetek gure bizitzan? Nola egin dakieke aurre gizarte desberdintasunei? Jakin daiteke alde aurretik zenbaterainoko arrakasta izango duen app batek edo garbitzeko produktu batek? Soziologiak dauka galdera horien eta beste askoren erantzuna.

XXI. mendeak gizarte **errealitate global berri bat** ekarri digu, oso azkar aldatzen dena eta teknologia berrien eraginpean dagoena. Soziologiako Graduan aztergai izango dituzu **gizarte bizitza, gizarte aldaketa, kultura aniztasuna**, taldeak eta komunitateak, eta horien arteko harremanak eta interakzioa, eta **metodo zientifikoak erabiliko dituzu gizarte arazo konplexuei erantzuteko.**

Titulazio honek gaitasuna emango dizu:

- Gizarte arazoak eta premiak aztertzeko.
- Praktika sozialen aurrean jarrera kritikoa izateko.
- Politika publikoko eta esku-hartze sozialeko proiektuak diseinatzeko eta kudeatzeko.
- Erakunde publiko eta pribatuetan hezkuntza politika eta programak diseinatzeko eta ebaluatzeko.
- Erakunde publiko eta pribatuetan kudeaketa estrategiak garatzeko.
- Ikerketa soziologiko bat egiteko.
- Ikerketa soziologikoko txosten bat lantzeko eta aurkezteko.

Eleaniztasuna

Soziologiako Graduak oinarritzko eta nahitaezko irakasgai guztiak eta hautazkoetako gehienak autonomia erkidegoko bi hizkuntzetan eskaintzen dira, **euskaraz eta gaztelaniaz**. Gradu Amaierako Lana bi hizkuntza hauetako edozeinetan egin daiteke.

Gainera, nazioarteko profila aitortu ahal zaizu Nazioarteko Sakontze Aipamena lortzen baduzu.

Prestakuntza duala

Prestakuntza dualeko ibilbidea aukera dezakezu, unibertsitatean eta enpresa edo erakunde batean prestakuntza aldiak konbinatzen dituen.

Profil profesionalari dagozkion gaitasunak garatu ahal izango dituzu, enpresen edo erakundeen ingurune erreal batean ikasiz eta aipamen espezifiko bat lortu.

Prestakuntza osagarria

Graduaren edukiei lotutako hainbat arlotan espezializatutako prestakuntza praktikoko ikastaroak eskaintzen ditu fakultateak graduan zehar. Ikastaro hauek osagarriak eta doakoak dira horietakoren batean izena eman nahi duten ikasleentzat.

IKASKETA-PLANA

KREDITU BANAKETA ETA IKASTORDUAK GUZTIRA

| Maila | Adarreko Oinarrizko Irakasgaiak | Beste adar batzuetako Oinarrizko Irakasgaiak | Nahitaezko Irakasgaiak | Hautazko Irakasgaiak | Gradu Amaierako Lana | Guztira |
|----------------|---------------------------------|--|------------------------|----------------------|----------------------|------------|
| 1 | 60 | | | | | 60 |
| 2 | | | 60 | | | 60 |
| 3 | | | 42 | 18 | | 60 |
| 4 | | | 24 | 24 | 12 | 60 |
| GUZTIRA | 60 | | 126 | 42 | 12 | 240 |

AIPAMEN ETA AITORTZAK

Nahi izanez gero, Gradu hiru aipamenetako bat ikas dezakezu. Aipamena lortzeko bere hautazko irakasgaiak gaindituta izan behar dira, hirugarren eta laugarren mailetan.

| DESBERDINTASUNEN ANALISIA ETA GIZARTE POLITIKEN KUDEAKETA (M1) | KULTUR, IDENTITATE ETA HIZKUNTZA ANIZTASUNAREN ANALISIA (M2) | DUALA |
|--|--|--|
| Hiritartasuna, Gizarte Politikak eta Ongizatea | Kultura, Aisia eta Kontsumoa | |
| Aniztasuna, Desberdintasuna eta Gizarte Bazterketa | Iritzi Publikoa | Ordaindutako egonaldia enpresan edo erakundeetan 3. eta 4. mailetan. |
| Gizartea eta Ingurumena | Migrazioen Soziologia | Tutoretzapeko prestakuntza ibilbidea: |
| Migrazioen Soziologia | Familia eta Gizarte Aldaketa | - 48 kreditu, hautazko 8 irakasgairen baliokidea. |
| Osasunaren Soziologia | Komunikazioa Euskaraz: Gizartea eta Hizkuntza Praktikak | - Gradu Amaierako Lanaren 12 kreditu. |
| Familia eta Gizarte Aldaketa | Identitatearen eta Nazionalismoen Soziologia | |
| Ekonomiaren Gizarte Dimentsioak | | |

Gainera, ondoko aipamen eta aitortza hauek lortu ahal dituzu:

| NAZIOARTEKO SAKONTZEA | EUSKARA* | BIKAINASUNA |
|---|---|---|
| <p>Baldintzak:</p> <ol style="list-style-type: none"> Gutxienez 15 kreditu atzerriko hizkuntzetan edo UPV/EHUK eskaintzen duen «Intercultural Competences» ikastaroa egitea. Nazioarteko egonaldi bat, gutxienez hiru hilabetekoa, UPV/EHUKo truke programa batean. Atzerriko hizkuntza batean C1 maila edo goragokoa. | <p>C1 mailaren titulua aurkeztetik salbuesten duen ziurtagiria:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 48 Kreditu euskaraz + Gradu-Amaierako Lana + Euskarako hizkuntza prestakuntzako 12 Kreditu espezifiko. - 84 Kreditu euskaraz + Euskarako hizkuntza prestakuntzako 12 Kreditu espezifiko. - 114 Kreditu euskaraz + Euskarako hizkuntza prestakuntzako 6 Kreditu espezifiko. - 144 Kreditu euskaraz. | <p>Graduko kreditu guztiak lehenengo ohiko deialdian gainditzen badituzu.</p> |

* Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatutakoari jarraituz, UPV/EHUK ikasle bakoitzaren espediente akademiko pertsonalean automatikoki jasotzen du ikaslea salbuestita izango dela C1 mailaren baliokide diren euskarako hizkuntza-tituluak eta ziurtagiriak egiaztatzen.



LEHEN MAILA - 1. Lauhilekoa

Politika Zientziako Oinarrizko Kontzeptuak

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Funtsezko kontzeptuak, teoriak, tipologiak, ikuspegiak eta eztabaidak ulertzea. Gertaera politikoaren interpretazioari bideak irekitzea.

EDUKIAK

Politikaren zientzia. Politika eta sistema politikoa. Estatuaren kontzeptua eta garapen historikoa. Estatuaren barneko botere politikoaren banaketa. Estatuaz gaindiko erakundeak: Postestatalismoa? Sistema ez demokratikoak. Ordezkatze-demokrazia: Poliarkiak. Ordezkatze-demokrazien garapena.

Konstituzioa eta Globalizazioa

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Mendebaldeko tradizio modernoaren ekarpen politikoa eta intelektual nabarmenak ezagutu eta aztertzea. Kontzeptu politiko eta sozialen historikotasunaren kontzientzia hartzea.

EDUKIAK

Pentsamendu politikoa eta historia. Modernitatea eta bere aitzindariak. Absolutismoa eta Ilustrazioa. Iraultzen aroa. Mundu garaikidearen ideologiak eta mugimendu politiko-sozialak.

Ekonomia Politikoa

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Gaur egungo errealitatea aztertu eta ulertu ahal izateko gaitasunak eta oinarrizko ezagupenak lortzea. Etorkizunean lan munduan ikasleek aurre egin beharko dizkioten arazo sozioekonomikoen ulermenerako gaitasunak lortzea.

EDUKIAK

Ekonomia politikoa eta gizarte zientziak. Pentsamendu ekonomikoaren korrante nagusiak. Merkatuen funtzionamendua. Konkurrentziako merkatuaren mugak. Jarduera ekonomikoaren neurketa. Estatu eta ekonomia. Gaur egungo ekonomiaren tendentziak, arazoak eta erronkak.

Analisi Soziologikoaren Oinarriak

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Errealitate sozialaren azterketan erabiltzen ditugun oinarrizko kontzeptuak zehaztasunez ezagutzea, mugatzea eta definitzea. Errealitate sozialaren produkzioaz, erreproduzioaz eta eraldaketaz aritzeko erabiltzen ditugun kontzeptu teoriko nagusiak erabiltzea eta egoera zehaztutara aplikatzea, bai maila estrukturalan zein eguneroko bizitzan.

EDUKIAK

Soziologiaren eraketa zientzia gisa. Soziologiaren aztergaia: egitate eta ekintza soziala. Elkarrekintza eta hartu-eman sozialak. Rol sozialak eta kontrol soziala. Elkartze sozialak: kolektiboak, erakundeak, instituzioak. Boterea eta autoritatea: klasea, arraza, adina, generoa. Aldaketa eta gataska sozialak.

XX. Mendeko Historia Politiko eta Soziala

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Munduaren garapenaren bide nagusiak aztertu, batez ere Europan eta XX. mendean zehar, gure gaur egungo mundua ulertzeko gai izateko.

EDUKIAK

Inperialismoaren garaia. Lehenengo mundu gerra. Sobietar iraultza. Gerren arteko politika eta gizartea. Bigarren Mundu Gerra. Gerra hotzaren mundu bipolarra. Nazioarteko ordena berria. Gizarte posmateriala.



LEHEN MAILA - 2. Lauhilekoa

Analisi Politikoaren Oinarriak

Adarreko Oinarritzkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Gertakari politikoetan eragile, estruktura eta testuinguruen arteko harremanak aztertzea. Gizarte tradizionala, modernoa eta gaur egunekoaren arteko ezberdintasunak ulertzea. Estruktura politikoaren logika autonomoa ulertzea, baita estrukturetan kanpoko indarrek zein eragileek lortutako aldaketak aztertzea ere.

EDUKIAK

Kultura politikoaren aztertzearen eredua: errealitate sozialaren mailak. Kontzientzia: Gizarte modernoa eta postmodernoren baloreak; Identitateak; Ideologiak. Estrukturak: Tradizioa, modernitatea eta postmodernitatea. Aktoreak: Gizarte zibila; Alderdiak eta interes taldeak; Gizarte mugimenduak eta eraldaketa soziala. Emaitzak: Ekintza kolektiboa eta politika publikoak.

Gizarte Erakunde eta Prozesuak

Adarreko Oinarritzkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Oinarritzko egitura instituzionalak aztertzea: familia, hezkuntza sistema, erlijioa, lana, politika.

EDUKIAK

Egitura eta prozesu sozialen analisia: elementu sistematikoak. Egiturak eta prozesu ekonomikoak gaurko gizartean. Egiturak eta prozesu politikoak gaurko gizartean. Egiturak eta prozesu kulturalak gaurko gizartean.

Gizarte eta Politika Ikerketarako Sarrera

Adarreko Oinarritzkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 21 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Ikerketa prozesua eta bere faseak ezagutzea eta horietan sakontzea. Gizarte errealitatearen ezagutzari buruzko ikuspuntu orokorra hartzea, baita gizarte ikerketan agertzen diren paradigma metodologikoei buruzko azalpen orokorra ere.

EDUKIAK

Zientzia, metodo zientifikoa, ikerketa mailak eta ikerketa zientifiko enpirikoa. Gizarte ikerketaren formulazio teorikoa. Teoriaren eraikuntza. Ikerketa prozesuaren pausoak. Ikerketaren dimentsio praktikoa eta ikerketarako baldintzak.

Gizarte Psikologia

Adarreko Oinarritzkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Elkarrekintzaren prozesu psikosozialak bereiztea eta koerlazioztatzea. Horien eragina analizatzea eta balioestea bai pertsonaren eraikuntzan bai gizarte markoen eraikuntzan. Pertsonaren, taldeen, antolakundearen eta erakunde sozialen oinarri psikosozialak aztertzea eta baloratzea.

EDUKIAK

Gizarte Psikologia, jendarteko elkarrekintzaren zientzia. Pentsamendu soziala. Norberaren identitatea (self-a). Jarrerak eta beste kontzeptu disposizional zenbait. Eragin sozialaren psikologia. Taldearen psikologia eta identitate sozialak.

Nazioarteko Harremanak

Adarreko Oinarritzkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Gaur egungo nazioarteko gizartearen genesisia eta egungo egoera aztertzea eta baloratzea. Gizateriak XXI. mendean maila globalean aurre egin behar dizkion prozesu, arazo eta erronka nagusiak antzematea.

EDUKIAK

Nazioarteko Harremanen sarrera teoriko-kontzeptuala. Nazioarteko Gizartearen Aktoreak. Nazioarteko Sistemaren Egitura. Nazioarteko Gizartearen oinarritzko prozesuak. Gizateriak Aro Globalean dituen erronka nagusiak.



BIGARREN MAILA - 1. Lauhilekoa

Espainiaren eta Euskal Herriaren XX. Mendeko Historia

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

XX. mendean zehar Espainiako eta Euskadiko bilakaera historikoaren ezaugarri nagusiak aztertzea, munduko eta Europako testuinguruan kokatuz, egungo gizartea ulertzeko helburuz.

EDUKIAK

Berezarkuntzako Sistema Politikoa eta haren krisia. Euskal Herriko modernizazio sozioekonomikoa eta aniztasun politikoa Berrezarkuntza garaian. Bigarren Errepublika. Gerra Zibila. Autonomiaren aldeko borroka eta lehen Euzko Jaurlaritza. Gerraren ondorengo garai luzea. Garapen alditik frankismo berantiarren krisira Espainian eta Euskadin. Trantsizioa. Garai sozialista eta European sartzea.

Gizarte Ikerketa Kualitatiboa

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 14 h Gelako Praktika; 7 h Ordenagailuko Praktika.

HELBURUAK

Gizarte ikerketa kualitatiboaren funtsezko ezaugarriak ezagutzea. Gizarte ikerketa kualitatiboaren proiektua sortzen trebatzea. Informazio bilketarako teknika egokienak aukeratzen eta prestatzen saiatzea.

EDUKIAK

Gizarte ikerketa kualitatiboaren instituzionalizazio prozesua: mailak eta ikuspuntuak. Gizarte ikerketa kualitatiborako prozesuaren uneak. Testuak/diskurtsoak ekoizten dituzten teknikak: Elkarrizketa irekia; Eztabaida taldea; Objektibazio kualitatiboko beste modalitate empiriko batzuk. Ikerketarako txostena.

Gizarte Ikerketa Kuantitatiboa: Inkesta eta Bigarren Mailako Datuak

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 14 h Gelako Praktika; 14 h Ordenagailuko Praktika.

HELBURUAK

Izaera kuantitatiboko ikerketak burutu ahal izateko oinarrizko lanabesak ezagutzea, bai iturri sekundarioen bitartez bai iturri primarioen bitartez. Gizarte Ikerketa prozesuaren diseinuari dagozkion zereginak ikastea, hala nola, adierazleen eraikuntza eta laginen hautaketa. Galde-sorta edo datu sekundarioen bitartez burututako ikerketen plangintza, diseinua eta jarduna aztertzea.

EDUKIAK

Gizarte Ikerketa Kuantitatiboa. Bigarren mailako datuen iturriak. Datu primarioak eskuratzen. Laginketa diseinua: tamaina eta lagin-unitateen hautaketa. Galdesorta. Gizarte ikerketa Kuantitatiborako bestelako teknikak. Gizarte ikerketa Kuantitatiboaren txostena eta ikerketaren ebaluazioa.

Eguneroko Bizitzaren Soziologia

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Unean-uneke bizitza eremuetan edo bizitza-esparru lokaletan prozesu makroek, alegia prozesu ekonomiko, juridiko, kultural eta politikoen, duten eragina behatzeko eta aztertzeke gaitasuna garatzea.

EDUKIAK

Ezagutza arruntaren ezagutza. Eguneroko bizitzaren espazio-denbora egituraketa. Banakoen arteko harremanak. Eguneroko bizitza eta teknologia. Eguneroko bizitzaren politizazioa.

Teoria Soziologikoa I

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Soziologiaren sorrera eta lehenengo garapenak landu eta interpretatzea, ezagutza-arlo honek modernitatearen krisiari ematen dion erantzuna azpimarratuz.

EDUKIAK

Teoria soziologikoaren jatorria, garapena eta ezaugarriak. Lehenengo Soziologiaren paradigma teorikoak. Soziologiaren instituzionalizazio akademikoa. Laugarren gaia: Soziologiaren hastapena Estatu Batuetan. Lehenengo emakume soziologoak eta teoria klasikoa.



BIGARREN MAILA - 2. Lauhilekoa

Gizarte Egitura

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Gizarte analisirako funtsezko kontzeptuak aztertzea. Aipaturiko kontzeptu teorikoak aplikatzea bai Mendebaldeko gaurko gizartearen analisian bai gaurko euskal gizartearen analisi espezifikoagoan.

EDUKIAK

Oinarrizko kontzeptuak: egiturak, ekintzak, prozesuak. Egiturak eta prozesuak gaurko gizarte mendebaldarretan. Egiturak eta prozesuak gaurko euskal gizartearen.

Datuen Kudeaketa eta Analisi Estatistikoa I

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 14 h Gelako Praktika; 14 h Ordenagailuko Praktika.

HELBURUAK

Fenomeno politiko eta sozialak ikertzeko modu enpirikora lehen hurbilpen bat egitea. Estatistikari loturiko tresnen baliagarritasuna ulertzea.

EDUKIAK

Definizioa, tresnak eta datu baseak, Aldagaiak: definizioa eta datu diagramak. Aldagai kualitatiboak. Aldagai kuantitatiboak. Estatistika inferentziala.

Ikerketako Tailerra

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 14 h Mintegia; 14 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Baliabide tekniko, teoriko eta kontzeptualen bitartez, aztergai soziologikoak eraikitzea. Jendartea aztertzeke dauzkagun estrategia eta tradizio metodologikoak ezagutzea, garrantzi historiko berezia duten ikerketen analisiaren bitartez. Ikerlari sozialen lana kritikoki aztertzea eta soziologoek euren jardun profesionalean burutzen dituzten ikerketen ezagutzan sakontzea.

EDUKIAK

Ikerketaren arazoa eta egitasmoa. Lanketa teorikoa eta kontzeptuala: ikuspegi teorikoa nagusiak. Helburuei egokitutako eredu analitikoak sortzea. Hipotesiak: behin-behineko erantzunak. Metodologia eta lanketa enpirikoa. Informazio enpirikoa biltzea eta eraikitzea. Analisia: informazio enpirikoaren azterketa. Ondorioak eta aurrera begirako interesguneak.

Teoria Soziologikoa II

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Gizarte zientzietako debate teorikoen koordinadak identifikatzea, gizarte modernoaren krisialdiaren abiapuntutik. Proposamen teoriko garrantzitsuenak interpretatzea. Gaur egungo soziologiako lan teorikoko tresnak erabiltzea.

EDUKIAK

Gaur egungo teoria soziologikoari buruzko alderdi orokorrak. Proposamen funtzionalista. Estrukturalismoaren proposamena. Soziologiako urrezko aroko bestelako ikuspegi soziologikoak.

Komunikazioaren Teoriak

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Komunikabideen Sistemaren eta Iritzi Publikoaren arteko harremanak analizatzea, gai garrantzitsu batzuen inguruan. Gaiari buruzko ikerketa zein komunikazio teoria nagusiak baloratu, era kritikoa.

EDUKIAK

Komunikazioari buruzko pentsamendu teorikoa. Informazioaren gizartea. Komunikazioa eta kultura. Iritzi publikoa.

HIRUGARREN MAILA - 1. Lauhilekoa

Datuen Kudeaketa eta Análisi Estatistikoa II

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Ordenagailuko Praktikak.

HELBURUAK

Tresna estatistikoen erabileran trebatzea da, bi aldagai edo gehiagoren arteko erlazioei buruzko egoerak identifikatu eta aztertu ahal izateko, beti ere datuen azterketa anizkoitzaren logikatik abiatuta. Lagin bi edo gehiagoren arteko aldean hipotesi proben ebazpena aurkeztea.

EDUKIAK

Lagin/taldeen arteko diferentzien hipotesi probak. Bestelako metodoak batzbestekoaren alderaketa anizkoitzetarako. Aldagaien arteko erlazioaren azterketarako argibide kontzeptualak. Bi aldagai kategorizatuen arteko erlazioa. Azterketa anizkoitza kontingentzia tauletan. Bi aldagai tartekatuen arteko erlazioaren kuantifikazioa.

Gizarte Ikerketa Kualitatibo Aurreratua

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 14 h Ordenagailuko Praktikak; 7 h Laborategiko Praktikak.

HELBURUAK

Gizarte ikerketa kualitatiboan zehazpen analitikoak ikertzea; hau talde-lanean edo bakar-lanean egin daiteke, eta bere sistematizazio enpirikoan parte hartzen duten alde desberdinen arabera. Análisi kualitatiboaren "ohizko" prozedura eta ikuspegi eginiko kritikak kontuan hartuz, gaur egungo garapenaren alde emandako bere ekarpenak agerian jartzea.

EDUKIAK

Ekoi zen kualitatiboaren materializazioa: Entzute eta begiratze aktiboak; Transkripzioa, narrazioa eta interpretazioa. Soziologia bisuala eta ikerketa etnografikoa. Edukiaren analitiko diskurtsoaren análisisira. Datu kualitatiboaren análisisirako programa informatikoen garrantzi eta egitura: Grounded theory-ren logika analitikoa; Protokolo informatizatua. Gizarte ikerketa kualitatibo baten txostena.

Teoria Soziologikoa III

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Modernitatearen krisiak eragindako eztabaida teorikoaren ardatz nagusiak identifikatzea. Ekarpente teoriko nagusien inguruan hausnartzea. Gizarte errealtatearen azterketarako ezinbestekoak diren baliabide teorikoak erabiltzen trebatzea. Soziologiaren izaera erreflexibo, performatibo eta kokatuaz ohartzea.

EDUKIAK

Teoria soziologikoaren oinarrien krisia: Análisi-objektuaren haustura eta eraldaketak; Barne eztabaidak. Azken proposamen bateratzaileak eta beste zenbait ekarpen berritzaile. Objektuaren berrirakurketa ikuspegi mikro-aren arabera: soziologia sortzaileak eta egunerokotasunaren soziologia. Soziologiaren subjektuaren berrikusketa.

Ongizatea, Gizarte Politikak eta Hiritartasuna (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 7 h Mintegia; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Alderdi sozialetan garatutako politika publikoak diseinatu, planifikatu, azaldu eta ebaluatzea. Ikasitako ezagupenak ahoz zein idatziz laburbiltzeko eta azaltzeko gaitasuna izatea.

EDUKIAK

Gizarte politikak. Ongizate estatua eta immigrazioa. Ongizate estatua eta aldaketa enplegu arau sozialean. Prozesu demografikoa eta ongizate estatua sostengatzea. Ongizate estatua, emakumea eta familiak. Elementu ideologikoak. Politika publikoen gizarte eraikuntza. Aukerak. Ongizatearen krisia.

Kultura, Aisia eta Kontsumoa (2A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 7 h Mintegia; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Marko teorikoak eta estrategia metodologikoak azterketa soziologikoren ikuspegitik aztertu eta azaltzea, ikerketa lerro nagusietako eredu desberdinak aurkeztuz.

EDUKIAK

Hurbilketa soziologikoa kulturara. Aisialdiaren ikusmolde soziologikoa eta esanahiak. Kontsumo ereduaren genesia, eraketa eta bilakaera.

Iritzi Publikoa (2A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak; 7 h Ordenagailuko Praktikak.

HELBURUAK

Testuak eta dokumentuak bilatzeko, hautatzeko, interpretatzeko eta aztertzeko gaitasuna garatzea. Gertaerak eta iritziak bereizten jakiteko gaitasuna sustatzea. Komunikazioaren arloko ikerketaren printzipio metodologikoak ezagutzeko.

EDUKIAK

Iritzi publikoaren kontzeptua. Iritzi publikoaren historia. Iritzi publikoa, politikoa eta demokrazia. Iritzi publikoa eta masen komunikazioa. Iritzi publikoaren ikerketa enpirikoa. Egungo arazoak.

HIRUGARREN MAILA - 2. Lauhilekoa

Hiri Soziologia

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Hiriak aztertu dituzten Soziologiaren ikuspegi teoriko-metodologikoak ikaste eta hiriek eragiten dituzten efektuak errekonozitzea eta aztertzea. Hirien arazoak aztertzea eta interpretatzea.

EDUKIAK

Hirien hasierak. Hiri aztertua (pentsatzen dugun hiria): paradigmak eta teoriak. Bizi dugun hiria: ikuspegi sozialak eta ekonomikoak. Eraikitzen dugun hiria: planifikazioa eta hiri politikak.

Prestakuntza Duala I

Hautazko ibilbidea. 24 kreditu. Praktikak enpresa edo erakundeetan.

Populazioaren Teoria eta Azterketa

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak; 7 h Laborategiko Praktikak.

HELBURUAK

Biztanleriaren bilakaera analizatzea, perspektiba globaletik zein tokikotik. Adierazle demografiko nagusiak ezagutzea eta horiek kalkulatzeko eta interpretatzeko ikastea. Prozesu demografikoen eta beste gizarte prozesu batzuen artean dagoen interdependenziari buruzko azterketan eta gogoetan sakontzea. Dinamika demografikoen eta politika publikoen artean dagoen erlazioari buruz eztabaidatzea.

EDUKIAK

Demografia eta biztanleriaren azterketa: sarrera. Datu demografikoen iturriak. Gertaera demografikoen analisiaren sarrera. Biztanleriaren egitura. Gertaera demografikoen denborazko dimentsioa. Biztanleriaren hazkundea. Hilkortasunaren analisia. Ugalkortasunaren trantsizioa. Ugaltze kontrola eta familia prestakuntza. Gizarte moderno eta hazkundearen krisia. Migrazioen analisia.

Azterketa Kuantitatibo Aurreratua

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Laborategiko Praktikak.

HELBURUAK

Aldagai askoren erlazio ereduak identifikatu eta ebazteko tresnak ezagutzea. Datu mota eta teknika egokien erabilgarritasuna irizpide, teknikak egoki bereiztea eta aplikatzen trebatzea.

EDUKIAK

Azterketa aldagaienitza. Erregresio anizkoitza. Bariantzaren faktore Azterketa. Osagai Nagusizko Faktore-azterketa (ONA). Korrespondentzien Faktore-azterketa (KBA/KAA). Quick Cluster: mordoan sailkapen ez-hierarkikoa (K-MEANS).

Proiektuak Diseinatu eta Egitea

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Ikerketa proiektu mota aipagarrienak osatu ahal izateko beharrezkoa den ezagutzaz jabetzea. Giro akademiko zein profesionaleko ikerketetarako proiektu edo egitasmoak diseinatzea eta burutzea.

EDUKIAK

Proiektuak diseinatu eta egiteko oinarriak. Ikerketa-diseinuak. Ikerketa-proiektuak aurkezteko elementu aplikatuak. Ikerketa-diseinu aplikatuak. Ikerketaren balioespena.

Aniztasuna, Desberdintasuna eta Gizarte Bazterketa (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 7 h Mintegia; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Gizarte desberdintasunak (polarizazioa eta dualizazioa) eraldaketa ekonomikoen (berregituraketa ekonomikoaren eta globalizazioaren) aurrean hartzen dituen forma berriak eta gizarte kapitalista aurreratuen ongizate estatuarenak identifikatzea. Desberdintasun, pobrezia, bazterketa eta gizarte bazterketa kontzeptuak metodologikoki aplikatzea datu analisi enpirikoarekin.

EDUKIAK

Gizarte bikoiztasun eta polarizazioko prozesuak ongizatearen kapitalismoan. Gizarte desberdintasuna. Gabetzea, pobrezia, bazterketa, ahultasuna eta gizarte bazterketa. Hurbilketa teorikoak gizarte bazterketaren kontzeptura. Pobrezia eta gizarte bazterketa analizatzeko eta neurtzeko metodologiak. Gizarte bazterketaren bizi zikloak eta ibilbideak. Baztertutako kolektiboaren gizarteratze politikak.

Gizartea eta Ingurumena (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 7 h Mintegia; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Gizarte Zientzietan ingurumen politiken inguruan hausnarketa egiten diren teoria eta eskolei buruzko marko teoriko egokia jasotzea. Euren ondorio sozialak eta politikoak aztertzea.

EDUKIAK

Ingurumen eredu eta gaiari buruzko eztabaida teorikoak. Ingurumen dimentsioak gizarte aurreratuetan. Garapen ereduaren definizioa. Hiri jasangarria. Tokiko Agenda 21.

Herri Parte-hartzerako Prozesuak eta Metodoak

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 7 h Mintegia; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Herritarren parte hartzea eta botere politikoari buruzko talde gogoeta egitea. Herritarren jabetasuna eta parte hartzea errazteko Gizarte Zientzietan garatzen ari diren ikusmoldeak eta metodologiak ezagutzea. Modu praktikoan herritarren parte hartzea errazteko metodologiak garatzea.

EDUKIAK

Herritarren parte hartzea sustatzeko esperientziak: Herri ekimena; Erakundearen ekimena. Ikerketa-ekintzaren proposamen metodologikoa: diagnosis eta eragiteko plangintza modu kolektiboan sortzea. Jakintza eta metodologia emantzipatzaileak. Giza agentzia, herritarren parte hartzea eta botere politikoa.

Erakundearen eta Enpresaren Soziologia

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 7 h Mintegia; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Antolamendu esparruan sortzen diren prozesuak eta premiak ulertzea, horiek egungo gizartearen eraldaketekin lotuta; oinarritzko tresnak erakunde publiko eta pribatuetan kudeaketa estrategiak prestatzeko.

EDUKIAK

Erakundeak eta gizarte globala. Antolamendu egitura eta diseinua. Egituratik antolamendu prozesuetara. Pertsonak eta erakundeak. Erakundearen gizarte testuingurua. Aldaketa, berrikuntza eta antolamendu ikaskuntza.

Euskara eta Euskal Kultura (euskarako taldea)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Soziologia eta Politika zientzien arloan euskarak dituen erronkez jabetzea.

EDUKIAK

Hizkuntza komunikazio-prozesuan. Soziologiako eta politikako testu-generoak. Kontsulta-tresnak.

Gizarte Berrikuntza eta Aldaketa

Nahitazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Gizarte berrikuntza eta aldaketa ulertu, interpretatu eta aztertzeke baliagarriak diren tresna teoriko, kontzeptual eta analitikoak eskuratzea.

EDUKIAK

Aldaketa sozialaren erronkak: Gure testuinguruan esku-hartzea. Jendarte aldaketa. Jendarte berrikuntza. Baliabideen kutxa: Jendarte berrikuntza eta aldaketa aztertzeke tresnak. Jendarte berrikuntzak aldaketaren bultzindar? Mugak eta irismena.

Hezkuntzaren Soziologia

Nahitazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Hezkuntza sistemaren funtzioak aztertzea, baita aldaketa ekonomiko, sozial eta politikoeke funtzio horietan dauzkaten eraginak, indibidualizazio-, destradizionalizazio- eta globalizazio-prozesuen ondorioz. Hezkuntza sistemak klase-, etnia- eta genero-desberdintasunen sorkuntzan eta birsorkuntzan daukan eginkizuna analizatzea. Hezkuntza sistemaren eta gizartearen arteko harremanen konplexotasuna ulertzea.

EDUKIAK

Hezkuntza eta soziologia. Teoria klasikoak hezkuntzaren soziologian. Hezkuntza sistemaren funtzionaltasuna: Asmo meritokratikoa. Eskola, legitimazioa eta menderatze sozial eta ekonomikoaren birsorkuntza. Hezkuntza aldatzen ari den munduan: Sozialtasunaren krisia eta posmodernitatearen sorrera. hezkuntza eta gizarte egitura. Irakasleriaren eta ikasleriaren soziologia.

Migrazioen Soziologia (1A, 2A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 7 h Mintegia; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Mugikortasun geografikoa gizarte fenomeno gisa ezagutzea eta ulertzea, haren kausa zein ondorioetan maila desberdinetan. Migrazio fenomenoaren intereseko zenbait esparru geografikoren testuinguruan jartzea: Europa, Espainia eta Euskal Herria.

EDUKIAK

Migrazio fenomenoaren. Migrazio fenomenoaren inplikazioak: konplexutasuna eta multidimentsionalitatea. Egungo nazioarteko migrazioen erronka nagusiak. Migrazioak gure testuinguru geografikoetan eta aldaketak krisi testuinguru batean.

Osasunaren Soziologia (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 7 h Mintegia; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Gaitasun teoriko eta analitikoaren garatzea gaur egungo gizarteko hainbat prozesu ulertzeke eta beraietan soziologikoki esku-hartzeke: Osasuna/Gaixotasuna/Osasun Arreta.

EDUKIAK

Arriskuaren Gizartea eta modernitate pentsakorra. Osasun arloko alderdi soziokulturalak. Gizarte irudia osasun/gaixotasunean. Gizarte desberdintasunak osasun arloan. Osasun sistemak eta osasun politikak.

Familia eta Gizarte Aldaketa (1A, 2A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 7 h Mintegia; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Mendebaldeko gizarteetan familia aldaketa identifikatu, aztertu eta azaltzea.

EDUKIAK

Familiaren ikuspegi soziologikoa. Familiaren aldaketak. Gizarte politikak eta familia.

Komunikazioa Euskaraz: Gizartea eta Hizkuntza Praktikak (euskarako taldea, 2A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Komunikazio gaitasuna lantzea, ahozko zein idatzizko testuinguruetan. Modu eraginkor eta argian komunikatzea, ahoz zein idatziz, beste profesionalekin, erakundeekin eta hedabideekin, bakoitzaren maila eta beharretara egokituz eta moldeak birformulatuz.

EDUKIAK

Komunikazioa Soziologian eta Politika Zientzietan. Testu-generoak. Dibulgazioa Soziologian eta Politika Zientzietan. Euskara esparru publikoan. Hizkuntza-praktikak eta balioak. Euskararen corpusaren politika.

Prestakuntza Duala II

Hautazko ibilbidea. 24 kreditu. Praktikak enpresa edo erakundeetan.

Generoaren Soziologia

Nahitazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Gelako Praktikorak.

HELBURUAK

Genero kategoria eta sexu-genero kontzeptuaren gaineko ikuspegi desberdinak kritikoki identifikatzen jakitea. Genero ikuspegiak zein Teoria Feministek soziologiaren egindako ekarpenak kritikoki baloratzen jakitea. Genero sozializazioaren mekanismoak kritikoki identifikatzea.

EDUKIAK

Teoria feminista eta teoria soziologikoa. Feminismo, Zientzia eta Teknologia. Genero sozializazioaren eremuak. Giza lokarriak posmodernitateko gizarteetan. Genero Indarkeria. Genero, lana eta enplegua. Genero botere egiturak. Genero berdintasunaren politikak.

Soziologia Politikoa

Nahitazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikorak.

HELBURUAK

Soziologia Politikoa kontzeptu nagusiak eta zenbait eztabaida teoriko identifikatzea. Soziologiaren tresna teoriko eta kontzeptualak aplikatuta, esparru politikoa garatutako aldaketa prozesuak interpretatu eta beraien testuinguru sozialean eta historikoan kokatzea. Teoria soziopolitiko nagusiak eguneroko errealitate politikoaekin harremanetan jarri, eta modu kritikoa erkatzea.

EDUKIAK

Soziologia Politikoa aztergaiari buruzko gogoeta. Sistema politikoa eta egitura soziala. Sistema politikoa eta gizarte zibila. Bizitza politikoa alderdi kulturalak. Aldaketa eta gatazka esparru politikoa.

Zientzia, Teknologia eta Gizartea

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 7 h Mintegia; 7 h Gelako Praktikorak.

HELBURUAK

Zientzia, teknologia eta ezagutzari buruzko azterketa sozialaren oinarri teoriko eta metodologikoak ulertzea. Erakundeetako aldaketen alderdi sozialak eta ezagutza kudeaketarekin lotutako prozesuak ulertzea. Gai honi buruzko informazio garrantzitsua bilatzea, hautatzea eta aztertzea: iturri dokumentalak, iturri estatistikoak, etab.

EDUKIAK

Ezagutza zientifikoaren produkzioa: Zientzia eta teknologiaren arteko harremanak. Zientzia eta teknologiaren politika: I+G erakundeak. Berrikuntza sistemak: Berrikuntza prozesuak enpresetan. Teknologia, kudeaketa sistemak eta organizazio aldaketa. Ezagutzaren kudeaketa, organizazioko ikaskuntza eta berrikuntza.

Identitatearen eta Nazionalismoen Soziologia (2A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 7 h Mintegia; 7 h Gelako Praktikorak.

HELBURUAK

Eguno identitate kontzeptuaren sorreran parte hartu duten osagai historiko, eta soziologikoez jabetzea. Gizarte modernoetako identitate kolektiboaren inguruko gatazkaz jabetzea. Nazio identitatearen eta nazionalismoaren ezaugarriak identifikatzea.

EDUKIAK

Identitatea gizarte zientzien testuinguruan. Norbanakoa, taldea, komunitatea... Identitatearen mailak. Identitatearen isla klasikoak eta modernoak. Nazioa eta identitatea egungo gizarteetan: nazionalismoak.

Ekonomiaren Gizarte Dimentsioak (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikorak.

HELBURUAK

Ekonomiaren diskurtsoaren oinarri ideologikoa agerian uztea. Subjektibazioaren prozesua ekonomiaren diskurtsoan kokatzea. Bizitzaren espazioak eta denborak ekoizteko orduan ekonomiaren papera kritikoki aztertzea. Ekonomia eta estatuaren arteko erlazioak aztertzea. Ekonomia neoliberalaren aurrean, ekologismo eta feminismoaren ikuspuntuetatik gaur egun garatzen ari diren irakurketa kritikoak ezagutzea.

EDUKIAK

Ekonomiaren arrazionaltasuna: Modernitatea; Ekonomiaren oinarri epistemologikoa. Neoliberalismoaren espazio eta subjektuak: Taylorismo eta fordismoaren premisak; Neoliberalismoaren diskurtsoa eta praktika; Neoliberalismoa eta subjektibitatea. Demokrazia, kontrola eta neoliberalismoa: Botere harremanak eta salbuespenaren dinamikak; Estatu, ekonomia eta dimentsio punitiboa. Natura merkantilizatuaren ekoizpena: Ekologia politikoa; Aztarna ekologikoa eta zor ekologikoa. Eredu neoliberalaren problematizazioa.

Praktikak enpresetan

Hezkuntzarako lankidetzak praktikek aukera ematen dizute **enpresa eta erakunde publiko zein pribatu enrealitatera hurbiltzeko** eta, hartara, langunean bertan ezagutzeko laneko ohiturak eta trebetasunak. Horrela, zure prestakuntza akademikoa osa dezakezu eta lan esperientzia eskuratu, titulazioan ikasitakoarekin zerikusia daukaten atazak eginez.

Praktikak borondatezkoak dira graduako **hirugarren eta laugarren mailetan**. Fakultateko irakasleen tutoretzapean egiten dira, eta haiengatik ikasleei 6 kreditu aitortzen zaizkie, hautazko irakasgaiekin egiten den bezala.

450

hitzarmen baino gehiago hezkuntza lankidetzarako

900

plaza baino gehiago praktiketarako

600

enpresa eta erakunde laguntzaile baino gehiago

Soziologiako Graduako ikasleek praktikak egiteko **50 enpresa, instituzio, elkarte eta fundazio baino gehiago** daukazue zuen esku, besteak beste:

- Euskobarometro
- Udalak
- Merkatu ikerketak egiteko enpresak
- Gobernuz Kanpoko Erakundeak
- Erakunde publikoa
- Etab.

Fakultateko webgunean lauhilabeteko bakoitzean eskaintzen diren plaza guztien **informazio gaurkotua** ikusgai dago: enpresa, eginkizunak, betebeharrak eta ordainsaria.

Mugikortasun programak

Graduko bigarren mailatik aurrera, ikasleek bi mugikortasun programatan parte har dezakete, egonaldiak egiteko atzerriko eta estatuko beste unibertsitate batzuetan ikasten. Ikastaldiaren epea aukera dezakete: lauhileko bat edo ikasturte osoa.

Hauek dira mugikortasun programak:

1. **Erasmus+**, Europako unibertsitateetarako: Alemania, Belgika, Danimarka, Erresuma Batua, Frantzia, Herbehereak, Italia, Norvegia, Suedia, besteak beste.
2. **UPV-AL**, Latinoamerikako unibertsitateetarako: Argentina, Brasil, Kolonbia, Mexiko, Peru, Txile, besteak beste.
3. **Beste Norakoak Programa**, AEB, Kanada, Hego Korea, Filipinak eta Japoniako unibertsitateetara joateko.
4. **SICUE**, Estatu Espainiarreko unibertsitate nagusien arteko trukerako.

Nazioarteko mugikortasun programetan ikasleek ingelesez, frantsesez edo alemanez ikas dezakete. Horretarako, ikasleak hizkuntza horietan gaitasuna daukala egiaztatu beharko du.

230

plaza baino gehiago Europako unibertsitateetan egonaldiak egiteko

50

plaza baino gehiago Latinoamerikako unibertsitateetan egonaldiak egiteko

140

plaza baino gehiago Estatu unibertsitateetan egonaldiak egiteko

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

- SICUE
- ERASMUS +
- Latinoamerika eta Beste Norakoak.

